

TXINPARTA BERTSO ESKOLA

1985ean sortu zen eta duela pare bat urtera arte Oñatiko Bertso Eskola deitzen zen, baina izen propioa jartzea erabaki zuten eta sortzailearen izena jarri zioten: “Txinparta” etxean jaiotako Joxe Mari Agirrebengoak sortu zuen bertso eskola, garai hartan Oñatiko Udaleko kultura teknikari ez ezik, bertsozale amorratua ere bazen. Gazterik hil zen, 40 urte bete aurretik.



Gaur egun 26 pertsona inguru dabilta Txinparta bertso eskolan, 4 taldetan banatuta: 10-12 urtekoena, 15-17 urtekoena, 18tik aurrerakoena eta helduena. Astean behin elkartzen da talde bakoitza eta tarteka merendola batzuk egiten dituzte, bai bertso eskolan bertan, baita Debagoieneko beste bertso eskolekin elkartuta. Urte amaieran, berriz, bertso eskolako afaria egiten dute bi bertsolari ekarrita.

Txapelketei dagokienez, Gipuzkoako Eskolartekoan Txinpartako hiruk parte hartu dute. Azpimarratzekoa da **Maidar Arregik** irabazi zuela txapela eta Euskal Herrikoako sailkatu zela. Eta, hara! Euskal Herriko Eskolarteko txapelketako txapela ere berak irabazi zuen!!



Aurten lehendabizikoz ‘Txinparta Gazte Sariketa’ antolatu dute, gazteek kantatzeko toki bat gehiago izan dezaten. Lehen ere egin izan dira halakoak, beste izen batzuekin; gazteek gaztetxean, esaterako. 18 urteren bueltako 16 gazte aritu dira Txinparta Sariketan eta **Urko Arregi** oñatiarrak irabazi zuen txapela.

Gaztelekuko IX. bertsopaper lehiaketa ere abian da, martxoaren 12ra arte aurkeztu daitezke lanak Gaztelekuan eta martxoaren 18an izango da Sari banaketa.